

ERABAKIA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GERENTEARENA, HORREN BIDEZ GERENTZIAKO SEGURTASUNAREN ARDURADUNA (DBLO) L 344 LANPOSTUA ALDI BATEZ ETA EGINKIZUNEN ESLEITZEAN BETETZEKO 2027KO UZTAILAREN 10EKO DEIALDIA EBATZI DA.

GERTAKARIAK

Lehenengoa.- Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearen 2027ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

Bigarrena.- 2024ko irailaren 9ko erabakiaren bidez, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

Hirugarrena.- Gerentzia honek deialdi honetan onartutako izangaiek adierazi eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratzeari ekin dio.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Gerentzia honek eskumena dauka erabaki hau emateko Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko den 2021eko urtarrilaren 28ko erabakiarekin bat etorri (2021eko otsailaren 12ko EHAA),

Bigarrena.- Deialdiko lanpostua Eginkizunen Esleitzean erregimenaren bidez hornitzeko prozedura hau da: AZPko lan kontratudunen plangintza batzordearen 2017ko uztailaren 18ko Akordioa (AZPko lan kontratudunei eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzeari buruzkoa), UPV/EHUko Gobernu Kontzeiluaren 2017ko irailaren 28ko bilera berrestatua,

Hirugarrena.- Aipatutako prozedurak ezartzen du hautatua izango dela merezimenduak hurrenkera ordenatuan baloratu ondoren goren geratzen den pertsona.

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DU

Lehenengoa.- Eranskinean jasota dauden baldintzetan eta azaltzen den lanpostuari eginkizunak esleituta hautatutako lan kontratudun langilea atxikitzea.

Bigarrena.- Esleipena 2024ko irailaren 16ko ondorio-datatz egitea. Esleipen hori indarrean egongo da 2017ko uztailaren 18ko akordioaren 8. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Hirugarrena.- Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean.

Laugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, dagozkien Zerbitzuko Buruei edo Administrazioari, eta nominen atalari. Har beza kontuan AZPren atalak.

Bosgarrena.- Erabaki honen kontra lan-auzibideko epaitegi eskudunaren aurrean aurkeztu ahal izango du interesdunak demanda. Demanda jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, Erabaki hau jakinarazten den biharamunetik. Hori guztia, 36/2011 Legeak urriaren 10eko Gizarte-arloko jurisdikzioa arautzen duen Legeko 69.2. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

Sin./Fdo.: Juan José Unzilla Galán

Eraldaketa Digitalaren eta Komunikazioaren arloko errektoreordea

Vicerrector de Transformación Digital y Comunicación.

Gerentzia hutsik geratzeagatik, gobernu-taldearen ordezkapen-araubidearen aldaketa partzialaren UPV/EHUko errektorearen, 2023ko urtarrilaren 31ko Ebazpenarekin bat etorrita (2023ko otsailaren 8ko EHAA).

Por vacancia de la Gerencia conforme a la Resolución de 31 de enero de 2023, de la Rectora de la UPV/EHU, sobre modificación parcial del régimen de suplencias de su equipo de gobierno (BOPV de 8 de febrero de 2023).

I. ERANSKINA

2027ko uztailaren 10eko EGINKIZUNEN ESLEIPENA deialdiaren Erabakia

Esleipenduna: ZUBIZARRETA HORMAECHE, MAREN
Lanpostua: Segurtasunaren arduraduna (DBLO)
Erref: L 344
Zenbatgarrena: 1
Lanaldia: Arautua
Taldea: I
Categoría profesional: IKTko goi mailako teknikaria
Especialitatea: Sistemen Informatika
Maila: 25
HE: 3.02/12
Langunea: GERENTZIA
Campus: BIZKAIA
BE:
Ondorio data: 2024ko irailaren 16